IÑAKI TXUEKA Getariako Txakolina jatorri izenaren lehendakaria

«Izendatze prozesua irekiz gero, denei emango zaie sartzeko aukera»

I. GURRUTXAGA
Getaria

Gustura zen atzo Iñaki Txueka, Getariako Txakolinaren uzta ireki berritan. Izendatzearen inguruan zabaldutako eztabaidari itxaropenez begiratzen dio.

Zer moduzko txakolina dator?

Txakolin txukuna. Azken urteetan, ordea, udan eta udazkenean bero egiten ari da, eta mahats biltzea edo uzta aurreratzen ari da. Baina hala ere, txakolinaren nortasunari eutsi nahi diogu, hau da, gradu gehiegi ez dezala izan, eta mantendu dezala bixigarri eta grazia hori.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Asko aurreratu da?

Aurten hogei-hogeitabost egun lehenago, baina hala da. Bere garaian heltzen da mahatsa, eta kito. Askotan aipatzen ditugu klima aldaketa eta halako kontuak, baina egia esan, gu baino adin gehixeago dutenek esaten dute orain dela 40 urte ere hogei egun lehenago bildu zutela txakolinaren uzta.

Gustu aldetik eta, zer behar du txakolinak?

Gustuaren oreka mantetzen saiatzen gara. Hamaika gradu inguru behar ditu txakolinak, bixigarri eta azidez puntua izan dezala, nortasun hori mantentzea oso inportantea baita guretzat. Mundu globalizatu honetan dena berdintzeko joera dago, eta guk bada, gutxixeago edo gehixeago, gure nortasuna mantendu nahi dugu.

Jatorri izenaren inguruan dagoen auzia konpontzeko gakoa non dago?

Borondatea jartzen ari gara. Momentu honetan gertatzen da Bruselak oso zorrotz arautzen dituela gai hauek. Jaurlaritza, Diputazioa eta jatorri izena elkarrekin hizketan, negoziatzen eta etorkizuneko urratsak nola eman behar diren adosten ari gara azken hilabeteetan. Eta ados jartze prozesu horretan nik uste dut pare bat hilabetean nolabaiteko polemika txiki eta handi hori bideratua izango dela. Baina lehendabizi baldintza horiek hitzartu egin behar dira.

Eztabaida dago, beraz.

Ardoa izugarri eboluzionatzen eta mugitzen dabil mundu guztian. Bruselan izugarrizko eztabaida dago ardo munduaren inguruan. Txikiak eta umilak izan arren, prozesuak merkatuaren arabera eraman behar dira.

Txakolindegi gehiago zabaltzeko aukera emango du prozesuak?

Jatorri izenaren barruan bi upeltegi berri irekiko dira. Momentu honetan 227 hektarea inguru daude landatuta, eta zabalkundeari lotuta, eztabaida sortu nahi dugu 250etik 300 hektareara pasatzeko. Prozesua irekitzen bada, denei eskainiko zaie aukera.